



- **Zin-zinez pozgarria da** Euskaltzaindiarentzat, Soziolinguistika Klusterrarekin batera, BAT aldizkariaren zenbaki monografiko honetan parte hartzea, bi-biak baitira, neurri handi batean, euskararen egungo egoerari buruzko kezka eta arrangura dutenak.

Aspaldikoak dira Euskaltzaindiaren ahalginak euskararen erabilera dela eta. Sortzez, 1918-1919 urte hartatik bertatik datozkio euskararen akademiari euskararen ikerkuntza eta jagote-lanak, Iker eta Jagon sailen barruan. Hasierako horri eutsi dio bere historia luzean

Euskaltzaindiak eta bitzuotan nabarmendu da euskalgintzaren alorrean.

Egun, hala ere, Euskaltzaindiak Jagon sailarekin daukan konpromisoa are agerikoagoa da, argi baitago hizkuntza politika baten eragileak, administrazio publikoak ez ezik, gizartean ari diren erakundeek ere izan behar dutela eta euskararen kasuan, Euskaltzaindiak duela horretarako ardura, erakunde aholku emaile ofiziala den neurrian.

Izatez, horixe da Euskaltzaindiaren egitekoetan egoki zertzen dena, alegia, ez hizkuntza politika zehatza formulatzea, ez bada euskararen inguruko hizkuntza politikari edo politikei buruzko gogoeta esparrua eskaintzea, berarekin batera ari diren euskalgintzako hainbat eragilerek jarraitzeko, esparru hori zabala eta egokia izan dadin. Ukaezina da garai hauetan, aldi bateko Jagon lana deitzen zenak soziolin-

# Agurra

Andres Urrutia

*Euskaltzainburua*

guistika izena duela gizarte aurreratuetan, diziplina berri horrek barneratu baititu garai bateko jakituria sakabanatuak, hizkuntzaren erabileraren inguruan sortu zirenak.

Horrexegatik dator era-erara BAT aldizkariaren zenbaki honetan ontzen eta moldatzen den elkarlana. Bateko, euskararen zaintzan zereginak eta jarduerak egiten dituen erakunde ofiziala eta besteko, Soziolinguistika Klusterra, egungo soziolinguistikaren zehaztapenak eta teknikak erabiltzen dituena, euskararen mesederako, arlo horretako nondik norako ugarietan.

Zenbakiaren gaia ardatz hartuta, esan dezadan diglosia kontzeptua azaldu zenetik gaur arte, esanguratsu gertatu dela euskararen egoera deskribatzeko eta zehazteko. Bide horretatik, ale monografiko honetan aurre-rakada nabarmena eskaintzen zaio irakurleari,

euskararen egoera hori aztertzeke eta iker-  
tzeke tenorean.

Betoz, beraz, honako ekimenak, euskalgintzaren barneko lan erkideak bultzatzen dituztenak, eta erabat garrantzitsu direnak, garai latz hauetan gure arteko sinergiak baliatzeko eta euskal gizarteari emaitza berriak eskuratzeko.

Ziur nago hurrengoan ere, bidelagun izango garela euskararen inguruko langintzan. Horretarako dago Euskaltzaindiaren konpromisoa, atsegin osoz beteko dena. •